

auzo auzo • auzo auzo • auzo auzo

altza

Adreilua: gizarte hobe eraikitzeko sinbologia

Altzako Berpiztu sustapen sozio-heziketarako elkarteak, Madrileko Caja elkartearekin batera, «Elkartasunerako adreilua» izeneko kanpainan murgildurik dago maiatzaren 26ra arte. Hori dela eta, Berpiztu-ko arduradunarekin, Vicky Fernandezekin, solasaldi txiki bat izan dugu.



«Gizarte hau aldatzen saiatzen diren elkarteak ezagutzera ematea, auzoetako giza arazoak ezagutaraztea eta dirua lortzea dira kanpainaren helburuak».

Nolakoa da kanpaina?

Oso gauza zehatzean oinarritzen den kanpaina da: adreiluak saltzen dira, adreilu normalak eta papergainekoak. Auzoko denda eta taberna gehienetan eros daitezke.

Zeintzu dira kanpainaren helburuak?

Hiru helburu nagusi ditugu, lehenik gizarte hau aldatzen eta hobetzen lan egiten duten elkarteak ezagutzera ematea. Bigarrenik, auzoetan dauden giza arazoak ezagutaraztea: pobrezia, langabezia eta bertako

errealitatea orokorrean. Eta azkenik helburu ekonomikoa, hau da, haur eta gazteekin lan egokia egiteko dirua behar da eta horretarako instituzioek ematen duten dirulaguntzez gain elkartearen finantzabidea lortzeko bide berria jorratu nahi izan dugu.

Nola har daiteke parte kanpaina honetan?

Kanpaina honek igortzen duen mezuaz jabetuz adibidez. Noski, elkartasun hori gauzatzeko jarri ditugu salgai pin-ak, adreiluak, papergainekoak eta kuestazioen bat ere egin dugu.

zieren bat ere egin dugu.

Zergatik aukeratu dira adreiluak eta ez beste edozer gauza?

Adreiluak eraikuntzan erabiltzen dira, orduan utopia mundu batez hitzegitean, gizarte orekatuago baten eraiketaz aritzen garenez, adreilua sinbolo bezala hartu nahi izan dugu.

Non ari zarete egiten kanpaina hau?

Ez da bakarrik Donostia eta Madrilen zentratu, Estatuko beste zenbait elkartek ere parte hartu dute, hala nola, Zaragoza,

Bartzelona, Bilbo eta Malagakoek.

Noiz arte iraungo du?

Maiatzaren 26an Donostian egingo den jai berezi batekin amaituko dugu egitaraua. Jaiak goizeko 10.00etatik gualde- ra arte iraungo du. Hilaren 20an kanpainaren balorazioa egingo dugu eta orduan esango dugu zein elkartek eramango duen kanpaina honetan lortutako irabazien %7a.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ARGAZKIA: IMANOL OTEGI

publizistak

42 95 93 edo
42 68 07
telefonora
DEITU

PERFILA:
Euskara maite izatea - Lanerako gogoia
Publizitatea lortzeko gaitasuna
Talde lanerako joera

BEHAR DIRA
Irutxulo N